ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko irailaren 23a, ostirala • 109 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2022 Foru Dekretua, irailaren 20koa. Onestea Hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, bai eta 2022rako deialdia ere. Europar Batasunak -NextGeneration EU- finantzatutako deialdia da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren esparruan

COVID-19ak eragindako epidemiaren agerpenak inoiz ez bezalako osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisia ekarri du mundu osora. Pandemiak Europan eragindako kalte ekonomiko eta sozialak ahal den neurrian arintzeko, 2020ko uztailaren 21eko Europar Batasuneko Kontseiluak Berreskuratzeko Europako Tresna abian jartzea onetsi zuen. Tresna horren garapenean, Parlamentuak eta Kontseiluak Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua eman zuten, zeinaren bidez ezartzen baita "Next-Generation EU" funts berriaren bidez finantzatuko den berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa, haren elementu nagusia "Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa" izanik.

Ministro Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an egindako bileran, Kultura eta Kiroleko ministroak proposatuta, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez baimentzen baita autonomia erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek kudeatutako kredituen lurralde banaketaren eta banaketa irizpideen proposamena egitea Kultura eta Kirol Ministerioaren aurrekontuaren kontura, Berres-kuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren "Kultura industriaren balioa handitzea" 24. osagaiaren esparruan.

"Kultura industriaren balioa handitzea" izeneko 24. osagaiak Espainiako kultura industrien balio katea indartzera bideratutako erreformak eta inbertsioak jasotzen ditu, hiru ardatz estrategiko hauek sustatuz: lehiakortasuna, lurraldearen dinamizazioa eta kohesioa, eta kultura zerbitzu handien digitalizazioa eta jasangarritasuna. Horren barruan hainbat proiektu daude, eta besteak beste, "C24 Kultura industriaren balioa handitzea. I2 Kultura dinamizatzea lurraldean zehar. C.24. I2. P1. Kultura eskaintza hirikoak ez diren eremuetan zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak". Horren arabera, Next Generation funtsen bidez finantzaketa hori jasotzen duten autonomia erkidegoek kredituak bideratu beharko dituzte beren lurralde eremuko erakunde publiko eta pribatuetara 2022. eta 2023. urteetan laguntzak emateko deialdi publikoetarako.

2021eko irailaren 9an, Kulturaren Konferentzia Sektorialaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoak bat egin zuen Next Generation izeneko kredituen lurralde banaketaren proposamena eta kreditu horiek banatzeko irizpideak baimentzen duen Erabakiarekin. Horien artean dago C24. I2. P1 osagaia, kultura eskaintza hirikoak ez diren eremuetan zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzei dagokiena.

Aipatutako akordioaren oinarrian dagoen dokumentu zuzentzailean aurreikusten da laguntza horiek lurralde historikoetako foru organoek kudeatzeko aukera: "finantzaketa lerro horien erakunde betearazleak aurreko banaketan adierazitako autonomia erkidegoak dira, eta, hala badagokio, diputazioak, kabildoak edo uharteetako kontseiluak, nahiz eta azken hartzaileak erakunde publikoak edo pribatuak izan daitezkeen".

Esan behar da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanetarako azaroaren 25eko 27/1983 Legeak mugatzen dituela Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen artean eskumenak banatzeko parametroak, eta finkatzen duela zein erakunderi dagokion titulartasuna eta erabiltzea. Hala, 7. artikuluan, lurralde historikoen eskumenei buruzkoan, xedatzen du lurralde historikoetako foru organoen eskumen esklusiboa dela, besteak beste, lurralde historikoaren intereseko kultura erakundeak sortzea eta mantentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketen eta proiektuen aurrekontuen eta kontabilitatearen betearazpenari buruz eta kudeaketa eta jarraipenari buruz (martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpena).

Erabaki horren laugarren puntuak honela dio, "hitzez hitz: Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko Administraziotik lor ditzakeen eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen artean adostutako eskumen mugaketaren arabera, Lurralde Historikoetako foru organoei gauzatzea dagokien azpiproiektuak finantzatzera legez atxikita dauden diru sarreren lurralde banaketa lurralde historikoen artean aldez aurretik hitzartuko da foru aldundiekin edo, bestela, kasuan kasuko erakunde arteko organoen baitan".

Foru aldundiek beren gain hartuko dituzte, beren eskumenen esparruan, berreskuratze eta erresilientzia mekanismoaren araudiak erakunde betearazleei esleitzen dizkien konpromiso eta betebehar guztiak, haiei baitagokie azpiproiektuak betearaztea.

Halaber, aipatutako akordioaren laugarren puntuko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari dagokio, baimena ematea, gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko titularrak proposatuta, diru sarrera horiek lurralde historikoen artean banatzeko.

Hala, 2022ko ekitaldirako, Arabako Foru Aldundiari 108.187,55 euroko funtsa dagokio, "hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak (C24. I2. P1)" finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuari dagokionez, finkatzen da Kultura Zuzendaritzaren eginkizunak direla kultura beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, arteak nahiz kultura ekimenak bultzatu, finkatu eta garatzeko, bai eta kultura ekintza eta kulturaren zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere. Eskumen horiek baliatuta, Kultura Zuzendaritzak esparru egokia garatu du Arabako kultura sektorea biziberritzeko, sustatzeko eta hari laguntzeko, dirulaguntzen urteko deialdiak onetsiz.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan "hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak" gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2022. urteko deialdia. Europar Batasunak –NextGeneration EU– finantzatutako deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, foru dekretu honen I. eranskinaren arabera.

Bigarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen 2020-2022rako Foru Sektore Publikoko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina. Ebazpen honen II. eranskina da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileen eranskin hauek onartzea:

• III. eranskina: Datuak laga eta tratatzeko adierazpenaren eredua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez.

• IV. eranskina: Eskaera orria.

• V. eranskina: EBko finantza kontroleko erakundeen informaziorako eskubideak eta sarbideak emateko baimen orria, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez.

•VI. eranskina: Ingurumen helburuetako bati kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana).

•VII. eranskina: Konpromiso adierazpenaren eredua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez.

•VIII. eranskina: Estatu laguntzen araubidearen bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.

• IX. eranskina: Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako neurrien planari eta iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalari atxikitzea.

• X. eranskina: Administrazio publikokoak ez diren langileen interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpenaren eredua (IGEA).

Laugarrena. Erabaki honek arautzen dituen laguntzak Arabako Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuko partida hauen kargura ordainduko dira, honela banatuta:

2022. urtea:

— 1. modalitatea. 70105. G/334700/47900706 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Enpresak. 40.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.3777.

— 2. modalitatea. 70105. G/334700/48100702 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Elkarteak. 24.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.3778.

— 3. modalitatea. 70105. G/334700/46290708 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Toki erakundeak. 22.550,04 euro, zorpekin erreferentzia 105.3779.

2023. urtea:

— 1. modalitatea. 70105. G/334700/47900706 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Enpresak. 10.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.181.

— 2. modalitatea. 70105. G/334700/48100702 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Elkarteak. 6.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.182.

— 3. modalitatea. 70105. G/334700/46290708 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Toki erakundeak. 5.637,51 euro, zorpekin erreferentzia 105.183.

Bosgarrena. Kultura arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 20a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
Mª INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN HIRIKOAK EZ DIREN EREMUETAN KULTURA ESKAINTZA ZABALTZEKO ETA DIBERTSIFIKATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2022. URTEKO DEIALDIA. EUROPAR BATASUNAK – NEXTGENERATION EU– FINANTZATUTAKO DEIALDIA DA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen xedea da zehaztea Arabako Lurralde Historikoko hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak, 2022ko deialdian.

Dirulaguntzen deialdi hau hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntza planaren barruan sartzen da. Plan hori NextGeneration EU Europar Batasunak finantzatzen du, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 24. osagaiaren barruan (Kultura industriaren balioa handitzea) eta C24. I2. P1 neurriaren barruan (Hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza handitzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak). Laguntzen deialdiak Kontseiluaren Betearazpen Erabakiak (Council Implementing Decision-CID) eta Xedapen Operatiboek (Operational Arrangements-OA) 24. osagairako eta C24. I2. P1. neurrirako ezarritako mugarriak eta helburuak bete beharko ditu. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren VI. eranskinean eta VII. eranskinean finkatutako etiketa berdeen eta digitalen arloan onartutako betebeharrak betetzen ditu deialdiak.

Bigarrena. Laguntzen helburua

Deialdi honen dirulaguntzen helburuak honako hauek dira:

a) Kultura jarduera, sorkuntza, praktikak eta prozesu garaikideak sustatzea, komunitateekin eta komunitate horien gizarte-, lurralde- eta kultura-testuinguru espezifikoekin lotura estuan, eta landa ingurunerako kontakizun, imajinario, irudikapen, estetika, balio eta jarrera berriak eraikitzen laguntzea, mundu garaikideak planteatzen dituen erronken testuinguruan, bai eta, orainarekin elkarrizketan, ondarea, ezagutza eta jakintza tradizionalak balioestea ere.

b) Landa ingurunean jarduten duten kultura eta sormen sektoreen eta eragileen dinamizazioa, modernizazioa eta berrikuntza sustatzea, enplegua sortzen, profesionalizatzen eta tokiko, eskualdeko eta nazioko sare profesionalak sortzen lagunduz, bai eta sektore horietan genero berdintasuna lortzen laguntzea ere.

c) Inklusioa sustatzea eta herritarren parte hartze aktiboa sustatzea kultura jardueran, parte hartze demokratikorako, ongizaterako, osasunerako eta gizarte eta lurralde kohesiorako tresna gisa, arreta berezia jarriz genero berdintasuneko eta gazteen partaidetzarako estrategiak txertatzeari eta ikastetxeekin lankidetzan aritzeari.

d) Kultura aniztasuna bultzatzea, bai eta elkarrizketa eta landa-hiri trukea ere.

e) Kulturak garapen jasangarriko helburuei egiten dien ekarpena bultzatzea, bereziki ingurumen jasangarritasunari lotutakoei.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Arabako lurraldeko kultura ekosistemari ekarpen garrantzitsua eta esanguratsua egiten dioten proiektuak eta jarduerak lagundu ahal izango dira diruz.

Bereziki, jarduera hauek finantzatuko dira:

a) Ekitaldi edo ikuskizun artistiko edo kulturalak, jaialdiak, erakusketak eta antzeko beste kultura jarduera batzuk eremu hauen barruan: ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezko arteak, antzerkia, dantza, zirkua, musika, literatura eta hitza, arkitektura, diseinua eta eskulangintza, diziplina anitzeko arte jarduerak eta kultura eta arteak zientziarekin eta/edo jakintza tradizionalekin lotzen dituztenak.

b) Eragile anitzeko parte hartzearen bidez –ideien laborategiak, proiektuen prototipoak, diziplinarteko ekimenak edo aliantza transektorialak– esperimentazioa, ikerketa eta kultura berrikuntza bultzatzen dituzten eta lurraldean zehaztapen praktikoa duten proiektuak.

c) Ondare immateriala, kultura eta praktika garaikideekin lotuta.

d) Arte eta kultura arloetako hezkuntza, transferentzia eta bitartekaritza jarduerak, teknologia berrien erabilera barne.

2. Laguntzak landa ingurunean garatzen diren kultura proiektuak eta jarduerak finantzatzeko erabiliko dira. Landa ingurunearen garapen iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legeak definitzen duen bezala, landa ingurunetzat hartuko da 30.000 biztanletik beherako eta km^2-ko 100 biztanletik beherako dentsitatea duten administrazio eskudunek definitutako udalerri edo toki erakunde txikien elkarteek osatutako eremu geografikoa. Definiziorik ez badago, eremu hori udalerriak mugatuko du.

3. Dirulaguntza eskaeraren xede diren proiektuak 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean garatu beharko dira.

4. Honako jarduketa hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Nekazaritzako eta eskulangintzako azokak.

b) Lehiaketa eta jarduera gastronomikoak.

c) Sexuagatik diskriminatzen duten jarduerak edo proiektuak.

d) Kultura sustapenarekin eta hedapenarekin zuzenean bat ez datozen ikasketa bidaiak, txangoak, bidaiak eta bisitak.

e) Aisialdiko eta/edo entretenimenduko jarduerek, jolas eta jai jarduerek, kirol jarduerek eta gizarte eta osasun jarduerek eragindako gastuak.

5. Erakunde eskatzaileek programa bakarra aurkeztu ahal izango dute, eta programa horren aurrekontu lagungarria 31.250 euro izango da gutxienez. Eskatzaileko programa bat baino gehiago aurkezteak automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak atzera botatzea.

Laugarrena. Emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko, ezarritako balioespen irizpideen arabera. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, baina betiere gainditu gabe deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa.

Bosgarrena. Erakunde onuradunak

1. Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten eta legez eratuta dauden erakundeak izan ahalko dira onuradunak.

2. Deialdi honen onuradun izan daitezkeen erakundeak hiru mota hauetakoak izan daitezke:

1. modalitatea. Irabazteko xedea duten erakunde pribatuak eta Langile Autonomoen Araubide Bereziari atxikitako profesionalak.

2. modalitatea. Irabazteko xederik gabeko erakunde pribatuak.

3. modalitatea. Eskabidearen egunean hirugarren oinarriko 2. apartatuan ezarritako landa eremukoa izatearen definizioa betetzen duten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta erakunde publikoak, betiere beren jardun eremu propioan kultura zabaltzeko eta sustatzeko programak kudeatzen badituzte.

3. Federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta erakundeek ez dute nor bere aldetik edo beste erakunde bateko kide gisa aurkezterik deialdi honetan. Egoera horrek automatikoki ekarriko luke egoera horrekin identifikatutako eskaera guztiak ez onartzea.

4. Erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza jaso aurretik. Kultura Ekintza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak betebehar horiek egunean izateko baldintzak betetzen dituela. Erakunde horrek egiaztapen horien aurka egiten badu, egitate horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikuluak arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken xedapenetako hamabigarrenaren bidez aldatua).

5. Kanpo utzitako erakundeak:

a) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, helburuen artean kultura izaerako jarduerek lehentasunik ez dutenean eta burutzen dituzten jarduerak kultura izaerakoak ez direnean.

b) Auzo elkarteak, gazte elkarteak, aisialdikoak eta denbora librekoak, bai eta hezkuntzarekin eta/edo prestakuntzarekin zerikusia duten guztiak ere, hala nola gurasoen elkarteak eta ikasleen eta ikasle ohien elkarteak.

c) Dirulaguntzaren xede bererako administrazio publikoekin kontratu bat esleituta daukaten erakundeak.

d) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

Seigarrena. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Deialdiaren zenbatekoa 108.187,55 euro da, honela banatuta: 86.550,04 euro 2022. urteko partiden kargura eta 21.637,51 euro 2023. urteko partiden kargura.

2. Europar Batasunak (NextGeneration EU) ahuneko ehunean finantzatzen ditu laguntza horiek, Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak ezarritako berreskuratze eta erresilientzia mekanismo europarraren bidez, eta Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera araututa (erregelamendu horren bidez ezartzen da berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa). Finantzaketa hori diruz lagundutako jarduketak egiteari lotuta dago legez, hau da, Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean txertatutako neurriei.

3. Erabaki honek arautzen dituen laguntzak Arabako Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuko partida hauen kargura ordainduko dira, honela banatuta:

a) 2022. urtea:

— 1. modalitatea. 70105. G/334700/47900706 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Enpresak. 40.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.3777.

— 2. modalitatea. 70105. G/334700/48100702 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Elkarteak. 24.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.3778.

— 3. modalitatea. 70105. G/334700/46290708 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Toki erakundeak. 22.550,04 euro, zorpekin erreferentzia 105.3779.

b) 2023. urtea:

— 1. modalitatea. 70105. G/334700/47900706 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Enpresak. 10.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.181.

— 2. modalitatea. 70105. G/334700/48100702 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Elkarteak. 6.000,00 euro, zorpekin erreferentzia 105.182.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— 3. modalitatea. 70105. G/334700/46290708 NGEU Kultura eskaintza Hirikoak ez diren eremuetan. Toki erakundeak. 5.637,51 euro, zorpekin erreferentzia 105.183.

Modalitate batean sor daitezkeen gaindikinek gainerakoen zenbatekoa handitu ahal izango dute, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

4. Baldintza guztiak betetzen dituzten eta esleitutako kreditua agortzeagatik dirulaguntzarik lortzen ez duten eskabideak itxaron zerrenda batean sartuko dira, balioespen irizpideak aplikatzearen ondoriozko lehentasun ordena errespetatuz.

5. Lagundutako finantzaketaren ehunekoa, gehienez, diruz lagundu daitekeen guztizko aurrekontuaren ehuneko 80 izango da, Kategorien salbuespenari buruzko Erregelamendu Orokorrarekin bat etorriz (Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 EB Erregelamendua, laguntza kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten duena, 107. eta 108. artikuluak aplikatuz).

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 80 ere. Erakunde eskatzaileari dagokio izatea ehuneko 20a bere baliabideen edo finantzaketa pribatuko beste bide batzuen bitartez.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

6. Gehienez ere lau proiektu hautatuko dira, eta horiek jasoko dute baloraziorik handiena, hamaikagarren oinarrian ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz. Aurkeztutako aurrekontuaren eta jasotako balorazioaren arabera kalkulatuko da dirulaguntza. Diru esleipena honako muga hauen arabera banatuko da:

a) Diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 80 emango da gehienez ere, proiektua gauzatzeko.

b) Gutxienez 25.000,00 euroko eta gehienez 40.000,00 euroko dirulaguntza emango da.

Zazpigarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat:

a) Inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gainditu ez eta 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean egiten direnak.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa), baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

c) Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen izenean fakturekin egiaztatutako transakzio ekonomikoa direnak; ez dira onartuko beste erakunde batzuek zuzenean ordainduko dituztenak.

d) 3. modalitatean izan ezik, gastu orokorrak edo zeharkakoak, gehienez diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 10, gastu horiek justifikatu beharrik gabe, eta kostu horiek jarduera programa benetan egiten den aldiari badagozkio. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83.3 artikuluan araututakoaren arabera.

Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak, jasotako proposamenak aztertzean, oinarri hauen helburua betetzen duten proposamenak eta gastuak zein diren ezarri ahal izango du, eta dirulaguntzaren proposamenetik kendu ahal izango ditu, zati batean edo osorik, oinarri hauetan ezarritakoa betetzen ez duten jarduerak edo gastuak.

2. Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko hauek:

a) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

b) Ordezkaritza, protokolo, opari gastuak eta antzekoak.

c) Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.

d) Oro har, berariaz kanpoan uzten direnak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.7 artikuluaren arabera.

e) Bigarren oinarrian adierazitako xedeekin bat ez datorren beste edozein.

f) 3. modalitatean, aurrekoez gain, honako gastu hauek ere ez dira diruz lagunduko:

• Soldatapeko langile gastuak.

• Entitatearen mantentze, kudeaketa eta funtzionamendu gastu orokorrak.

3. Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 90 izango da. Onuradun batek azpikontratatu egin duela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo haren zati bat egitea hirugarrenekin hitzartzen duenean.

4. Erakunde onuradunak itundu ahal izango du diruz lagundutako jarduera onuradunari lotutako pertsona edo entitateekin, betiere honako inguruabar hauek gertatzen badira:

a) Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egitea.

b) Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea.

5. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2006 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino (40.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 euro baino gutxiago BEZik gabe, baldin eta horniketa edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileri, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskaeran; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, beren-beregi, memoria batean.

Zortzigarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek, elkargo bateko kide izan beharra eskatzen duen jarduera profesional batean aritzen direnek eta jarduera horretan aritzean egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariek nahitaez aurkeztu behar dute eskabidea izapide espezifiko baten bidez, zeina egoitza elektronikoan baitago eskuragarri (https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-ampliar-y-diversificar-oferta-cultural-en-areas-no-urbanas). Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez.

2. Administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez dauden pertsonek IV. eranskinean jasotako eredu espezifikoaren arabera egin beharko dute eskaera. Hemen aurkeztu ahal izango da:

• Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

• Foru Ogasunak Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.

• Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

3. Eskabidea hainbat erakundek batera aurkezten badute, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta erakunde guztiak hartuko dira onuraduntzat. Era berean, pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar gisa, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, eta harekin ezagutuko dira eskaera izapidetzetik eratorritako gainerako jarduketak.

Bederatzigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamargarrena. Eskatzen den dokumentazioa

1. Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Kultura programaren proiektua, balorazioan kontuan hartuko diren alderdi guztiak jasoko dituena (hamaikagarren oinarria).

b) Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua kontzeptuen arabera. Aurrekontu orekatua izan beharko du, diru sarreren eta gastuen batura osoa baliokidea izango duena, eta diru sarreren atalean zehaztuko da eskatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa.

Ezinbestekoa izango da eskabideari eranstea aipatutako dokumentazioa oinarri hauetan ezarritako epean eta moduan. Eskabidea soilik aurkezteak, proiektuarekin batera joan gabe, izapidea ez onartzea ekarriko du berekin.

2. Era berean, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Datuak lagatzeko eta tratatzeko baimena. Hori guztia Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2d) artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoa betez, III. eranskineko ereduaren arabera.

b) EBko finantza kontroleko erakundeen informaziorako eskubideak eta sarbideak emateko baimen orria, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez, V. eranskineko ereduaren arabera.

c) Diruz lagundutako proiektuak gauzatzean ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa errespetatzeko konpromisoa, erreferentziatzat hartuta 24. osagairako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean jasotako printzipio horren ebaluazioa eta C24. I2 neurria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta haren garapen araudian xedatutakoa betez, VI. eranskineko ereduaren arabera.

d) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebehar guztiak betetzeko konpromisoa, VII. eranskineko ereduaren arabera.

e) Estatuko laguntzen bateragarritasun adierazpena eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa, VIII. eranskineko ereduaren arabera.

f) Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako planari eta adierazpen instituzionalari atxikitzeko adierazpena, IX. eranskineko ereduaren arabera.

g) Administrazio publikokoak ez diren langileen interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena, betiere deialdi honetan jasotako laguntzen erakunde onuraduna bada, X. eranskineko ereduaren arabera.

3. Hala behar izanez gero, BEZa ordaintzetik salbuetsita dagoelako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, dagokion zerga administrazioak emana.

4. Hala behar izanez gero, erakundearen ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5. Eskabidea elektronikoki aurkeztu ez bada, NANaren kopia aurkeztu beharko dute profesional autonomoek.

6. 3. modalitateari atxikiz gero, aurkeztu beharko dute erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, erakundeko idazkariak egina, gastu eskaera eta finantzaketa partziala baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik hartua.

7. Aurkeztutako eskaera egoki baloratu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzuak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

8. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren administrazio agirietan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie erakunde interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

Hamaikagarrena. Balioespen irizpideak

1. Dirulaguntzen eskabideen ebazpen proposamena egiteko eta horien zenbatekoak ezartzeko, honako irizpide hauek eta horien haztapena hartuko dira kontuan (gehienez 100 puntu):

1. Proposatutako jarduera bat etortzea deialdiaren bigarren oinarrian aurreikusitako helburuekin. Gehienez, 15 puntu.

2. Kalitatea, kultura eragina Arabako kultura eskaintzaren testuinguruan. Gehienez 20 puntu, honela banatuta:

a. Proiektuaren kalitate kulturala. gehienez 15 puntu.

b. Kultura eragina, garatzen den herrietan bertan eta kanpoan. 5 puntu gehienez.

3. Programaren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna, eta udalerrian antzeko programarik ez egotea. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

IZAERA BERRITZAILEA	HAZTAPENA
Altua	5 puntu
Nabaria	4 puntu
Ertaina	3 puntu
Baxua	1 puntu
Ez esanguratsua	0 puntu

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa. Gehienez 20 puntu, honela banatuta:

a. Proiektuaren oinarritzea. Lortu nahi diren helburuen deskribapen koherente eta argia. Gehienez 10 puntu.

b. Jardueren metodologia eta plangintza, gauzatze egutegia barne. 6 puntu gehienez.

c. Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak esplizituki zehaztea. 2 puntu.

d. Programaren komunikazioa eta zabalkundea. 2 puntu.

5. Jarraipena eta ebaluazioa. Helburuak bete diren neurtzeko eta ebaluatzeko tresnak txertatzea, baita proiektuaren inpaktuak ere: kultura, ekonomia, demografia, lurraldea, bizi kalitatea, ingurumen jasangarritasuna eta beste batzuk. Gehienez 15 puntu.

6. Programa garatzeko lurralde eremua Araba da (ez dira balioetsiko Arabatik kanpo egin daitezkeen jarduerak). Apartatu honetan puntuazioa lortzeko, proposatutako jardueren ehuneko 80, gutxienez, landa ingurunean integratuta dauden 5.000 biztanletik beherako udalerri eta herrietan egin beharko dira.

Gehienez 15 puntu, eskala honen arabera banatuta:

BIZTANLE KOP.	HAZTAPENA
1.000 arte	15 puntu
1.001-1.500	12 puntu
1.501-2.000	10 puntu
2.001etik gora	5 puntu

Erreferentzia izango dira 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden INEren biztanleria unitatearen errolda jarraituaren biztanleriari buruzko datuak.

7. Euskara erabiltzea programaren garapenean. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

a. Programan euskararen erabilera sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea. Gehienez 3 puntu.

b. Euskara erabiltzea programaren garapenean. Gehienez 2 puntu.

8. Ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

a. Programan sartzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak. Gehienez 3 puntu.

b. Programa gauzatzeko emakumeak kontratatzea eta parte hartzea profesionalki. Gehienez 2 puntu.

2. Dirulaguntza emateko proposamenean, gutxienez 60 puntuko balioespena lortzen duten eskabideak bakarrik sartuko dira.

3. Balioespen handiena lortu duten erakundeei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

4. Erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko egiten badio, ondoen baloratutako hurrengo proiektua lagundu ahal izango da diruz, eta horrela hurrenez hurren.

Hamabigarrena. Organo eskuduna eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, eta Eusko Legebiltzarraren emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.9 artikulua (indarrean dagoen testua) hartuko du kontuan batzorde horrek. Honako hauek osatuko dute:

— Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

— Batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.

— Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, hizpidea izango duena baina botorik ez, edo hark eskuordetutako pertsona.

Eskabideak ebaluatzen dituzten pertsonek eta Balorazio batzordeko kideek IGEA interes gatazkarik ez dagoelako adierazpena sinatu beharko dute, X. eranskineko ereduaren arabera.

3. Balioespen batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

6. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileri eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

Hamahirugarrena. Eskaeren birformulazioa

1. Dirulaguntzaren xedea erakunde eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, erakunde onuradunari bere eskabidea birformulatzeko eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Eskabideak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerak baloratzeko ezarritako irizpideak ere.

Hamalaugarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

Erakunde onuradunek betebehar hauek bete beharko dituzte:

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabiliko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak beteko dituzte, finantza kontrolak eta/edo kontu hartzailetzak egindako kontrolak beteko dituzte eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak beteko dute.

c) Egiaztatze eta kontrol jarduerei men egitea, batzordeak, OLAFek, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek beren eskumenak baliatzen dituztela bermatzeko.

d) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki iritzitako argibide eta agiri guztiak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari.

e) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla eta ezarritako gainerako betebehar eta eginkizunak ere.

f) Egiaztatzea baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin duela.

g) Kontabilitate sistema argia edo bereizia izatea, bai kontu bereizien kodeekin, bai justifikatutako gastuen identifikazio argiarekin.

h) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

i) Emakidaren ondoren argitaratutako material orotan eta egindako agerraldi publiko guztietan, berariaz aipatu beharko da Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa dagoela, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren logotipo ofiziala sartu beharko da, bai eta Europar Batasunaren ikurra ere, testu honekin batera: "Europar Batasunak finantzatua. Next-Generation EU". Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, PRTR funtsen kudeatzaile eta onuradunentzako Komunikazio Eskuliburuan ezarritako betekizunen arabera.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

j) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzeko, egungo idazkeran. Lege horren babespean, argitaratzen diren irudietan pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera, ez dira sexu objektu soil gisa agertuko eta ez da erabiliko estereotipo sexistarik eta genero rol eta identitateen dibertsifikazio sexuala bultzatuko da.

k) Finantzaketari dagozkion egiaztagiriak eta gainerako dokumentazioa gordetzea 3 urtez, eragiketari dagokion azken ordainketatik aurrera (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauei buruzko 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikulua).

l) Espainian jarduera egiteko behar den enplegu guztia sortzea. Jarduera hori lurralde nazionalean kontratatutako eta Gizarte Segurantzan afiliatutako langileekin egingo da. Betekizun hori betetzen dela agiri bidez justifikatu beharko da, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko kontratatutako langileen kontratuen kopia aurkeztuta.

m) Europar Batasunaren autonomia estrategiko eta digitalaren helburuan laguntzea, bai eta hornidura katearen segurtasuna bermatzea ere, kontuan hartuta nazioarteko testuingurua eta soluzioaren parte izan daitekeen edozein osagai edo azpisistema teknologiko sentikorren erabilgarritasuna, Europar Batasunean kokatutako hornitzaileei lotutako ekipamenduak, osagaiak, sistemen integrazioak eta softwarea erosiz.

Hamabosgarrena. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna. Finantzaketa bikoitzaren prebentzioa

1. EBFTren 107.3 artikuluaren arabera, deialdi honetan araututako laguntzak estatu laguntzak dira, hau da, barne merkatuarekin bateragarriak, eta Kategorien araberako Salbuespenen Erregelamendu Orokorraren 53. artikulua aplikatuko zaie (Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 EB Erregelamendua).

2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluaren arabera, zeinaren bidez Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen baita, deialdi honetan jasotako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik, estatutik, nazioarteko erakundetik, eta baita Arabako Foru Aldunditik datozenekin, baldin eta laguntzek ez badituzte gastu partida berberak betetzen eta ez bada gainditzen diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Nolanahi ere, aurkeztutako proiektuari edozein administraziok emandako dirulaguntza publikoek ezingo dute gainditu proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 80.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 80 ere. Erakunde eskatzaileari dagokio izatea ehuneko 20a bere baliabideen edo finantzaketa pribatuko beste bide batzuen bitartez.

3. Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzaileari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenetz edo eskuratzeko eskaerarik egin duenetz, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Jakinarazpen horrekin batera, eman edo ukatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Hamaseigarrena. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Oro har, diruz lagundutako jarduera amaitzean ordainduko dira dirulaguntzak, oinarri honetan adierazi bezala justifikatu ondoren.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta hatzaileak nolakoak diren, zer baliabide dituzten eta programak gauzatu aurretik dirua erabilgarri izateko beharra haien garapena bideragarria izan dadin, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira. Ordainketa huek berme beharrik gabe izango dira, dirulaguntzari atxikitako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, onuradunak aldez aurretik eskatu eta horren beharra justifikatzen badu.

Aurrerakin horiek proiektua hasten denetik aurrera ordaindu ahal izango dira, baldin eta aurrekontu baliabiderik badago eta emandako dirulagun tza osoaren ehuneko 80 gainditzen ez badute.

2. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, diruz lagundutako proiektua amaitzen den egunetik aurrera. Nolanahi ere, aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 15a izango da.

3. Pertsona edo erakunde onuradunak egindako justifikazioa justifikazio kontu erraztutzat hartuko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duenaren, 75. artikuluan jasoa.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

a) Ekintzaren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. Bereziki, ezarritako helburuen lorpen mailari egingo zaio erreferentzia. Gainera, diruz lagundutako jarduera edo proiektuetan parte hartu duten pertsonen, erakundearen titularren eta bertako langileen informazioa eman beharko da, sexuaren arabera bereizita, bai eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzeko kontratatu den erakundeko langileena ere, hala badagokio. Hala, datu bereiziak emango dira, emakumeen eta gizonen parte hartzean dauden aldeak agerian uzteko eta diskriminazio anitzeko egoerak eragiten dituzten beste aldagai batzuen eragina ezagutzeko, eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa ere egingo da.

b) Programaren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, proiektuarekin lotutako gastuak eta diru sarrerak zehatz-mehatz adierazita. Programak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Ahal dela, Excel formatuan edo baliokidean erantsiko da. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko faktura edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000 euro gainditzen badute (BEZa aparte). Era berean, gastu horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Zazpigarren oinarriaren 1 d) apartatuan jasotzen den bezala, 1. eta 2. modalitatera aurkezten diren erakundeentzat ez da beharrezkoa izango zeharkako gastuak edo gastu orokorrak justifikatzea, gehienez ere diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 10arekin.

c) Proiektuak, dirulaguntzaz gain, beste finantzaketa iturri batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretarako izan direla, finantzaketa iturri horiek estalitako gastu partida zehaztuz.

d) Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko langilerik kontratatu baldin bada, langileen kontratuen kopia aurkeztu beharko da.

e) Eskatutako hiru aurrekontuak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Aurkeztutako eskaintzen artean ez bada proposamen ekonomikorik onena aukeratzen, hori justifikatzen duen memoria bat ere aurkeztu beharko da.

4. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz, faktura elektronikoak gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Factura-e motako estandarren araberakoa izan beharko da faktura elektronikoen formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoak eskaintzen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak http://sede.minetur.gob.es/Prestadores.

5. Laguntzak justifikatzeko dokumentazioa modu telematikoan aurkeztuz gero Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dagoen izapide espezifikoaren bidez, jatorrizko egiaztagirien gordailuan sartu direlako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Aitorpen horretan adierazi beharko da emandako laguntzaren justifikazio gisa aurkeztu den dokumentazioa (ordainketen fakturak eta egiaztagiriak) bat datorrela erakundearen legezko helbidean zaintzapean daukan jatorrizko dokumentazioarekin. Adierazpen hori erakundearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

6. Instrukzio organoak, laginketa tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatu diren jatorrizko gastuen eta ordainketen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

7. Adierazitako epealdian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ordainketa krediturak baliogabetuko dira, eta "justifikatu beharreko aurrerakin" gisa jasotako diru kopuruak itzultzeko espedientea abiaraziko da. Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikienaren proportzioan.

Hamazazpigarrena. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorrean ezarritako kasuetan.

Onartutako dirulaguntza dela-eta jasotako diru zenbatekoak itzuli behar izatekotan, adituko da zuzenbide publikoko dirusarrerak direla, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluan jasotakoaren arabera kobratuko dira.

Hamazortzigarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus eta www.kulturaraba.eus/es/actualidad.

Hemeretzigarrena. Azken klausula

Foru dekretu honetan ezarritako prozedura arau hauetan ezarritakoaren mende dago: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea (indarrean dagoen idazketa) eta aplikatu beharreko araudi guztia.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. ERANSKINA

ALDATZEA DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza lerroa: NGEU Hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza 2022.

Ardatz estrategikoa: Arabako lurralde garapena.

Saila: Kultura eta Kirol Saila.

Aurrekontu partidak:

70105. G/334700/46290708	NGEU Hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza. Toki erakundeak
70105. G/334700/47900706	NGEU Hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza. Enpresak
70105. G/334700/48100702	NGEU Hiriguneetatik kanpoko kultura eskaintza. Elkarteak

2022	GUZTIRA
86.550,04	86.550,04

Dirulaguntzaren xedea: Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntza plana.

Onuraduna: Tokiko erakundeak, enpresak eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak.

Emateko prozedura: Norgehiagoka.

Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak:

Baterako finantzaketa: NextGeneration EU.

Jarraipen erregimena eta adierazleak:

— Diruz lagundutako proiektuen kopurua.

— Justifikatutako dirulaguntzaren ehunekoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

III. ERANSKINA

DATUAK LAGA ETA TRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

..... jaunak/andreak (NAN zk.: .....), ... entitateko (IFZ: .....; zerga egoitza: .....) ordezkaria/gerentea da, eta, BEEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Kultura industriaren balioa handitzea» deritzon 24. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean, adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluaren apartatu hauek:

1. 2. apartatuaren d) letra: "Berreskuratze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoan, eta datu base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena.

ii. Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailea bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrita.

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan definitutakoaren arabera (26).

iv. Berreskuratze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da".

2. 3. apartatua: "Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko estatuek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu kudeaketa onartzeko auditoriaren eta 15. artikuluaren 2. apartatuan eta 23. artikuluaren 1. apartatuan aipatutako akordioen aplikazioarekin lotutako funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo prozedurek dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluarekin bat etorrita, mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, bereizita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean".

3. Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

ANEXO IV. ERANSKINA

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud | **Eskaera data** ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo: ☐ **IKZ** CIF | ☐ **NAN** DNI | ☐ **AIZ** NIE | ☐ **Besteren bat** Otro

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo

Sexua ■ Sexo: ☐ **Emakumea** Mujer | ☐ **Gizona** Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm. | **Letra** | **Eskra.** ■ Escal. | **Solairua** ■ Piso | **Aldea** ■ Mano

Herrialdea ■ País | **Probintzia** ■ Provincia | **Udalerria** ■ Municipio | **Herria** ■ Localidad | **P. K.** ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono | **Mugikorra** ■ Móvil | **Faxa** ■ Fax | **Posta elektronikoa** ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm. | **Letra** | **Eskra.** ■ Escal. | **Solairua** ■ Piso | **Aldea** ■ Mano

Herrialdea ■ País | **Probintzia** ■ Provincia | **Udalerria** ■ Municipio | **Herria** ■ Localidad | **P. K.** ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo: ☐ **NAN** DNI | ☐ **AIZ** NIE | ☐ **Besteren bat** Otro

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo

Sexua ■ Sexo: ☐ **Emakumea** Mujer | ☐ **Gizona** Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ Nº protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono | **Mugikorra** ■ Móvil | **Faxa** ■ Fax | **Posta elektronikoa** ■ Correo electrónico

RE. 22/309

Kultura eta Kirol Saila **Departamento de Cultura y Deporte** **Orria** ■ Hoja 1/7

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS
(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar solo en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	**SWIFT**

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA	**ESKATZAILEAK bete behar du** ■ A rellenar por la persona SOLICITANTE
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ *Conforme entidad financiera (firma y sello)*	**ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT**■ INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES: ☐ **Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan**■ Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava. ☐ **Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan**■ Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.
Banku kontuaren titulartasunak bat etorri behar du erakunde eskatzailearekin ■ La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la entidad solicitante	

Datuak babesteko oinarrizko argibidea:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "T-41 Kultura sustapena" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kultura jarduera sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiola jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuez kanpo.

Información básica sobre protección de datos:

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "T-41 Promoción cultural" para la finalidad de promocionar la actividad cultural en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoaz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz –Araba).

Argibide gehiago:

Lege ohar hedatua (araba eus)

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

Aviso legal ampliado (araba.eus)

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK ■ DECLARACIONES RESPONSABLES
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Erakundearen betekizunak betetzeari buruzko adierazpena ■ Declaración del cumplimiento de requisitos de la entidad:

☐ **Erakunde eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko deialdian zerrendatutako baldintzak.** ■ La entidad solicitante cumple los requisitos enumerados en la convocatoria para ser beneficiaria de estas ayudas.

☐ **Ez du zehapen administratibo edo penalik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).** ■ No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).

☐ **Ez du konkurtso-deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaratuta, ez dago esku-hartze judizialaren mende edo ez ez da desgaitu Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza-aldia amaitu gabe.** ■ No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

☐ **Ez du eragin, errudun deklaratua izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.** ■ No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

☐ **Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza ez daude bateraezintasun-kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.** ■ No está incursa la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.

☐ **Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.** ■ Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

☐ **Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere** ■ Son ciertos y completos todos los datos de la presente solicitud, así como toda la documentación presentada.

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena aurkezten ez bada, ezingo da jarraitu ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen gertaera horien berri jakiten den unetik bertatik, betiere horren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

PROGRAMARI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DEL PROGRAMA

Programaren izena ■ Denominación del programa	
Programaren hasiera eguna ■ Fecha de inicio	**Programaren amaiera eguna** ■ Fecha de finalización

LOTUTAKO ENTITATEEKIN AZPIKONTRATATZEA ■ SUBCONTRATACIÓN CON ENTIDADES VINCULADAS

Diruz lagundutako jarduera azpikontratatuko da onuradunari lotutako pertsona edo erakundeekin? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zeintzuk. ■ ¿Se subcontratará la ejecución de las actividades subvencionadas con personas o entidades vinculadas? En caso afirmativo indique cuáles.

AURREKONTUA ■ PRESUPUESTO

Aurrekontua BEZa barne ■ Presupuesto IVA incluido	
Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado	
Norberaren ekarpena ■ Aportación de la entidad	
Beste sarrerak ■ Otros ingresos	

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA:
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

☐	**Programaren proiektua deialdiaren balorazio-irizpideetako alderdi guztiak adierazita.** ■ Proyecto del programa, consignando todos los aspectos que forman parte de los criterios de valoración de la convocatoria.
☐	**Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua kontzeptuen arabera. Aurrekontu orekatua izan beharko du, diru sarreren eta gastuen batura osoa baliokidea izango duena, eta diru sarreren atalean zehaztuko da eskatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa (BEZaren banakapenarekin).** ■ Presupuesto detallado de ingresos y gastos desglosado por conceptos. Deberá ser un presupuesto equilibrado en el que la suma total de ingresos y la de gastos sea equivalente, precisando en el apartado de ingresos el importe de subvención que se solicita (Con desglose de IVA).
☐	**III. eranskina: Datuak laga eta tratatzeko adierazpenaren eredua, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez.** ■ Anexo III: Modelo de declaración de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

☐	**V. eranskina: EBko finantza kontroleko erakundeen informaziorako eskubideak eta sarbideak emateko baimen orria, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez.** ■ Anexo V: Modelo de autorización para la concesión de derechos y accesos a la información de las entidades de control financiero de la UE en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).
☐	**VI. eranskina: Ingurumen helburuetako bati kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana).** ■ Anexo VI: Declaración responsable sobre el cumplimiento del principio de no causar un perjuicio significativo a alguno de los objetivos medioambientales (plan de recuperación, transformación y resiliencia).
☐	**VII. eranskina: Konpromiso adierazpenaren eredua, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez.** ■ Anexo VII: Modelo de declaración de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).
☐	**VIII. eranskina: Estatu laguntzen araubidearen bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.** ■ Anexo VIII: Compatibilidad régimen de ayudas de estado y prevención de la doble financiación.
☐	**IX. eranskina: Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako neurrien planari eta iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionalari atxikitzea.** ■ Anexo IX: Adhesión al plan de medidas antifraude y a la declaración institucional de lucha contra el fraude de la Diputación Foral de Álava.
☐	**X. eranskina: Administrazio publikokoak ez diren langileen interes gatazkarik ez dagoela dioen adierazpenaren eredua (IGEA).** ■ Anexo X: Modelo de declaración de ausencia de conflicto de intereses del personal externo a la administración pública (DACI).
☐	**NANaren kopia, autonomoa bada.** ■ Copia del DNI, en caso de autónomo/autónoma.
☐	**Erakundearen ordezkari lanetan diharduela egiaztatzen duen agiria** ■ Documento que acredite la representación de la Entidad
☐	**Erakundeak BEZaren kuotak berreskuratu ezin baditu, BEZaren salbuespen-ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.** ■ En el supuesto de que la entidad no pueda recuperar las cuotas de IVA, certificado de exención de IVA expedido por Hacienda Foral.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntza eskaera

Solicitud de subvención para la ampliación y diversificación de la oferta cultural en áreas no urbanas del Territorio Histórico de Álava **2022**

KULTURA ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR LA DIRECCIÓN DE CULTURA:
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, Kultura Zuzendaritzak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean: ■ De acuerdo con la normativa aplicable, la Dirección de Cultura comprobará en la administración competente los siguientes datos:

- **Zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- **Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duen informazioa** ■ Información de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

☐ **Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO** ■ ME OPONGO a la comprobación de oficio por parte de la Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Álava.

Aurka eginez gero, deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu ■ En caso de oponerse deberá aportar todos los documentos requeridos en las bases de la convocatoria.

.....
*(**Tokia eta data** ■ Lugar y fecha)*
Ordezkariaren sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona representante legal y sello

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

V. ERANSKINA

EB-KO FINANTZA KONTROLEKO ERAKUNDEEN INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAK ETA SARBIDEAK EMATEKO BAIMEN ORRIA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUKETAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

…… jaunak/andreak (NAN zk.: ……), …… entitateko (IFZ: ……; zerga egoitza: ……) ordezkaria/gerentea da, eta, BEEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Kultura industriaren balioa handitzea» deritzon 24. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean,

Behar diren eskubideak eta sarbideak ematen ditut bermatzeko Europako Batzordeak, OLAFek, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek beren eskumenak baliatzen dituztela Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren laguntzen gainean.

Halaber, berariaz ematen dut Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan jasotako baimena.

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

VI. ERANSKINA

INGURUMEN HELBURUETAKO BATI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA)

Erakundea: .....

Proiektuaren izena: .....

..... jaunak/andreak (izen-abizenak), ... entitateko (izen ofiziala) ..... (zein organo den) da, eta erakunde honetako izenean eta ordezkaritzan jarduteko beharrezko den gaitasunarekin, honen bidez hau:

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT

Ebaluazioa egin ondoren, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikuluaren arabera, aipatutako proiektuak/azpiproiektuak honako alderdi hauek betetzen dituela:

A. Bertan garatzen diren jarduerek ez diete kalte esanguratsurik egiten ingurumen helburu hauei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen sistema (edo «taxonomia») bat ezarriz inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluaren arabera:

1. Klima aldaketa arintzea.

2. Klima aldaketara egokitzea.

3. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.

4. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.

5. Atmosferaren, uraren edo lurzoruaren kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.

6. Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.

B. Jarduerak bat datoz Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko “Kultura industriaren balioa handitzea” 24. osagaiaren C24. I2 inbertsiorako ezarritako ezaugarriekin eta baldintzekin.

C. Proiektuan/azpiproiektuan garatzen diren jarduerek indarrean dagoen eta aplikagarria den ingurumen araudia beteko dute.

D. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrita, hauek direla bide: Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C58/01) Erregelamendua, Espainiako berreskuratze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina.

E. Garatutako jarduerek ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primariorik ere haien bizi ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze interesak.

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

VII. ERANSKINA

KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA, BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ

…… jaunak/andreak (NAN zk.: ……), …… entitateko (IFZ: ……; zerga egoitza: ……) ordezkaria da (zeregin hauek betetzen ditu: ……), eta, BEEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, "Kultura industriaren balioa handitzea" deritzon 24. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean, adierazten du ordezkatzen duen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagokionez estandar zorrotzenekin duen konpromisoa, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezko neurriak hartuz, eta, hala badagokio, hautemandako ez betetzeak dagokion agintariei jakinaraziz.

Horrez gain, BEEP planaren edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta plan horren esparruan gauzatutako jardueretan ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko ("DNSH" ingelesezko siglengatik, "do no significant harm"). Gainera, adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik, eta, hala badagokio, ez dagoela jasota Estatuko laguntzen erregimenarekin bateraezinak izateko arriskurik.

……, 2022ko ……aren ……(e)(a)n

Sin. ……

Kargua: ……

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

VIII. ERANSKINA

ESTATU LAGUNTZEN ARAUBIDEAREN BATERAGARRITASUNA ETA FINANTZAKETA BIKOITZAREN PREBENTZIOA

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (STEP) gauzatzean, Estatuaren laguntzei eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari dagokienez ezarritako mugak errespetatu behar dira.

Finantzaketa bikoitzari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europar Batasuneko Aurrekontu Orokorrari aplikatu beharreko finantza arauei buruzko (Finantza Erregelamendua) 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak berariaz ezartzen du 188. artikuluan finantzaketa bikoitzaren debekua dirulaguntzei aplikatu beharreko printzipio orokor gisa, eta 191. artikuluan adierazten du inola ere ezingo direla aurrekontuaren bidez bi aldiz finantzatu gastu berberak.

Estatuko laguntzen araubidearekiko bateragarritasunari dagokionez, deialdi honek 651/2014 Erregelamenduan ezarritako eskakizunak betetzen ditu. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz. Testuinguru horretan, emandako laguntzak estatuko beste edozein laguntzarekin batu ahal izango dira, baldin eta diruz lagun daitezkeen kostu berberei badagokie –zati batean edo osorik–, eta betiere metatze horrek ez badu gainditzen aipatutako Erregelamenduaren arabera laguntza horri aplika dakiokeen laguntzaren intentsitatea (ehuneko 80).

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko 2022. urteko laguntzen eskatzailea izanik, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, hau egiteko KONPROMISOA HARTZEN DU:

— Diruz lagundutako jarduera bera finantzatzeko beste laguntza batzuk lortu direla adieraztea, eta esleipen ebazpena aurkeztea.

BATERAGARRITASUN-ADIERAZPENA

(☐ Adierazi dagokiona)

☐ Ez da jasotzen ari xede eta helburu bererako administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako laguntzarik edo dirulaguntzarik.

☐ Laguntza edo dirulaguntza eskatu dio administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati, eta eman egin zaio (informazio hori “eskatutako beste laguntza batzuk” atalean zehaztu behar da).

☐ Laguntza edo dirulaguntza eskatu dio administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati, eta ebazteko zain dago (informazio hori “eskatutako beste laguntza batzuk” atalean zehaztu behar da).

ESKATUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUK

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA €

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

IX. ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANARI ETA IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI ATXIKITZEA

..... jaunak/andreak (NAN zk.: .....), ... entitateko (IFZ: .....; zerga egoitza: .....) ordezkaria da (zeregin hauek betetzen ditu: .....), eta, BEEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, C24. I2. P1 neurrian definitutako helburuak lortzeko, adierazten du bat egin nahi duela Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen den iruzurraren aurkako neurrien planarekin, bai eta Arabako Foru Aldundiaren iruzurraren aurkako adierazpen instituzionalarekin ere, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 28an eta 2022ko maiatzaren 17an onetsiak, hurrenez hurren.

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

X. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOKOAK EZ DIREN LANGILEEN INTERES GATAZKARIK EZ DAGOELA DIOEN ADIERAZPENAREN EREDUA (IGEA)

Espedientea: .....

Dirulaguntza: .....

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, aipatutako espedientearen onuradun, esleipendun edo parte hartzaile denez, hau adierazten du:

Lehenengoa. Honako hauen berri daukala:

1. Interes gatazka eragin dezakete onuradun pribatuek, bazkideek, kontratistek edo azpikontratistek, haien jarduketak SEMen funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza interesen aurka, interes gatazka baten esparruan.

2. Interes gatazka eragingo lukeen egoerari erreparatuta, honako hauek bereiz daitezke:

a. Itxurazko interes gatazka: Gertatzen da onuradun, bazkide, kontratista edo azpikontratista baten interes pribatuek arriskuan jar dezaketenean haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dagoenean lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren jokaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).

b. Balizko interes gatazka: Gertatzen da onuradun, bazkide, kontratista edo azpikontratista batek halako interes pribatuak dituenean, non interes horiek interes gatazka sor baitezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.

c. Benetako interes gatazka: Gatazka sortzen du funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta haien interes pribatuen artean, behar ez bezala eragin baitezakete betebehar horiek betetzean.

Bigarrena. Ez dagoela lehenengo apartatuan deskribatutako ezein egoeratan.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela Arabako Foru Aldundiari lehenbailehen jakinarazteko lehenengo apartatuan deskribatutako interes gatazkaren edozein egoera.

Laugarrena. Jakin badakidala interes gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, bidegabe jasotakoa itzultzeko espediente bat has daitekeela, eta aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen ondorio administratibo eta/edo judizialak ekar ditzakeela.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen du.

....., 2022ko .....aren .....(e)(a)n

Sin. .....

Kargua: .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432